



ZORROTZ MORROTZ

33. ZENB. 2015eko MAIATZA



ANA ELENA ALTUNA

ZORROTZA BHIKO IRAKASLEA

ZORROTZAKO GAZTE TRIATLOI KLUBA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



**kafetegia
alBoka**

Cordelería, 5
Zorrotza - 48013 BILBAO
Tfno. 94 499 29 43



**MESON
OKONDO**

**Pintxo askotarikoak
7etatik 23etara zabalik**

Zorrotza Kastrexana errep. 8 • Tel: 944 393 766

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak... FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Irigarritasuna eta frontoia: urratsez urrats eta iraunkortasunez, helburuak lor daitezke!!

ZM-ko ale hau kaleratzean, iada Usandizaga Musikaria kalea eta autobidea zeharkatzen dituen oinezkoen pasabidea lotzeko igogailuaren lanak martxan egongo dira. Bidegain kaleko aldapan eraikitzen ari diren kabina jasotzailearekin batera, hau auzoko alde altuen irigarritasuna hantzeko antzinako aldarrikapenean aurrerapauso bat izango litzateke.

Beste aldetik, egun hauetan Udalaren ordezkariekin bilera bat izatea aurreikusita dugu. Bertan frontoia estaltzeko proiektua aurkeztuko digute. Urratsez urratseta iraunkortasunez helburuak lortuz goaz. Oraindik asko geratzen da egiteko...

Animo eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarri



ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
33. zenbakia. 2015eko maiatz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behe
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:
Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Iratze Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:
Iñigo

Laguntzaileak:
Karlos Rodríguez
Nagore Ugarte
Santurtziko Irakurzaile Kluba

Inprimaketa:
Arin Graf



zurea da hitza
euskara
no te lo pierdas



Taberna
AITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



BAR
MOY
ATHLETIC CLUB
Berezitasunak: Txanpiak,
Hamburgesa eta sandwich
erraldoiak
ZORROTZA KASTREXANA, 21
© 944 360 702



Restaurante
Arsenio
Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua
Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Ekitaldi ugari Korrika ospatzeko...

Zorrotz Morrotz



Bi urterik behin Korrika gure auzotik pasatzen da, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ziren gure auzoan Korrika Bilbon bukatu zen asteburuan. Aurten ere Zorrotzako euskaldunak elkartu ginen giro ederrean ospatzeko. Ostiralean hasi ziren ekitaldiak Barry Manleyren bakarriketarekin. Masdness tabernan bildutako lagunek Barry lagun irlandarrak Euskal Herrian bizitako pasadizoak barrezka eta giro onean aditu zituzten. Hurrengo egunean euskaldunon ohitura onei jarraituz, bazkaria eta kantu-poteoa izan genuen. Bazkarian 50 pertsona inguru elkartu ginen sekulako giro ona sortuz bertan egon ginenon artean. Horren ostean, Dantzari tabernatik hasita kantu-poteoari ekin genion Enkarterriko Nafarroa kantu taldearekin. Kantu-poteora euskaldun gehiago animatu ziren eta oso arrakastatsua izan zen.



Igande goizean, sirimiriak ezin izan zituen auzoko euskaldunak gogogabetu. Altamiratik hartu eta Bilborako bidean agurtu genuen lasterketa erraldoia. Eskerrik asko 19.Korrika aurrera ateratzeko, modu batean ala bestean, laguntza eman duzuen guztioi. Gora Zorrotzako euskaldunak!



...haien artean Institutuan grabatutako Lipdub ederra

Zorrotzako Institutua

Bai, Korrika badator eta prest gaude. Ikastetxea girotu, kartelak jarri, musika zabaldu, istorioa kontatu, zer da, zergatiak, noiztik, nondik nora, noiz gurean... Eta horiek guztiak gure egunerokoan txertatuz, gure ikasleen euskal-duntze prozesuan, tipi-tapa aurrerantz egiten.

Eta aurten gainera Lipduba grabatu dugu. Aspaldiko asmoa zen baina asmoak ez dira askotan nahiko izaten, eta arazo teknikoekin topo egin eta bertan behera utzi izan dugu aurreko Korriketan. Aurtengoan, talde lanak bere fruituak eman ditu, eta Zorrotzako Euskal Txokoak eta Aek euskaltegiak teknikaria eskaini ziguten.

Hori gure poza, eta lanean jarri ginen. Lehenengo antolatzeko irakasle taldea sortu, talde ederra, lanerako prest. Ideia Gazteguneko jendeari zabaldu, eta denok batera, egitekoak azpimarratu eta lanak banatu. Korrika bera gure ikastetxean egitea izango zen gidoia eta horretarako, musika neurtu, ibilbidea finkatu eta probatu, ikasleei planteatu eta ideiak eskatu, lekukoak nortzuk, bakoitzak non eta zer egin, zein arropak, zein ekintzak, koordinatu, sinkronizatu, zer gela, zertan gimnasioan, nortzuk liburutegian, plastika eta informatika geletan, zer egin kimika laborategia... Institutu osoa gure korrikarako prest...

Eguna eta derrigorrezkoa zen teknikaria iritsita, lanean hasi ginen. Berak ere gogoz hartu zituen guk proposatutakoak. Kamara, akzioa!!! Grabazio 1,2,3... eta lortu genuen. Eta arratsaldean bertan ikusteko eta konpartitzeko aukera izan genuen. Youtuben ikusgai gure senide, lagun, auzokide, euskaltzale eta mundu osoarentzat (eta hau ez da bilbainada bat). Taldean egindako ekintza, polita eta ikusgarria.

Oraingoan Euskara izan da "erregaia" gu denok martxan jartzeko. Ia hurrengo Korrikan zer asmatzen dugun, gogoz gelditu gara eta.

Bitartean, tipi-tapa, tipi-tapa jarraituko dugu, euskal hezkuntza publikoan, gure auzoan, gure ikasleekin, gure etorkizunerako.



www.youtube.com/watch?v=bJDR6sAtOPk

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

Zazpi Landa etxaldea berregokitzeko dirulaguntzak



Igor Gutiérrez

Martxoan Etxebizitzen Berregokipena Sustatzeko Udal Enpresako kontseiluak (SURBISA) aho batez onartu zuen Zazpi Landa etxaldea berregokitzeko asmoa. Hala, sozietateak iragarri duenez, auzo osoko bizilagunek %85erainoko dirulaguntza jaso lezakete euren etxea birgaitzeko. Berrogeita bederatzi etxeko multzoa 1954an eraiki zen txabolis-

moarekin amaitzeko eta egun Bilboko auzorik hondatuenetarikoa bat da, besteak beste, bertan bizi diren 700 auzokideen egoera ekonomikoagatik. Zorrotzako Auzo Elkartek urteak daramatza Zazpi Landaren egoera salatzen eta etxebizitzaren berregokitzeaz gain, udal ekipamendu berriak ere eskatzen dituzte, hala nola, liburutegi bat.

Udalbatzak SURBISAren plana onartuz gero, Jaurilaritzari auzoa Birgaitze Integratutako Eremu (BIE) deklaratu dezan eskatuko dio, Etxebideko kostuaren %35 beregain har dezan. Gainerako dirulaguntza SURBISatik aterako litzateke eta, nahiz eta erakundearen arauak %10 eta %35 bitarteko limitea ezartzen duten, Zazpi Landarako traba hori kentzea ere erabaki du. Horrela, eraberritze osoa -fatxada eta igogailua- egitea erabakitzen duten auzokideek, %85erainoko dirulaguntza jaso lezakete eta igogailurik gabeko lanetan, berriz, kopuru hori kostuaren %80ra heldu liteke.

Edozein modutan, denbora asko falta da Zazpi Landaren itxura berria ikusteko, lanak 15 urtez irautea espero baita.

Hasi dira Usandizaga musikaria kaleko igogailuaren lanak

Azkenik hasi dira Usandizaga Musikaria kalea autobidea gurutzatzen duen oinezkoen pasabidearekin elkartuko dituen igogailuko lanak. Lan honen hasiera 2014ko urrirako aurreikusita zen arren, ADIF eta Udalaren arteko desadostasunak obren hasiera atzeratu egin du. Igogailu honekin eta Bidegain kaleko aldapako kabina jasotzailearekin eremu altuetako irisgarritasun arazoak hobetzea lortzea espero da.



Hermogenes Rojo kalea

LEHEN



Kale honek Renfe trenbi-deak bi zatitan banatzen ditu. Abaro estartan du hasiera eta Frai Juan kalea zeharkatuz, Marino Archer kalean du amaiera. 1937. urtea baino lehen "Q" izendatzen zen, baina 1938an udal erabaki baten ondorioz Hermógenes Rojo izena ezarri zitzaion. Ideologiaz tradizionalista, Rojo lehenengo langile eta gero nagusi zelarik lana eta kapitalaren arteko harremanak bateratzearen alde borrokatu zen. Esan bezala, udal frankistak 1938. urtean (beste politikari eta pertsona batzuekin egin zuen bezala) Hermogenes Rojori eskaini zion Zorrotzako kale hau haren ideologia faxistarekin bat egin zuela goraipatzeko asmoz. Zalan-tzazko meritua gaur egun, eta aldaketa ez bada, gutxienez, berriro aztertzea mereziko lukeen izena.

ORAIN



Jai-Alai
kafetegia



Abaro estarta, 12
94 490 12 59



ZORROTZA KASTREXANA, 10

Dantzari

Camino Zorrozeigiti 1,

94 612 93 85



drinks



txakoli



music



marra

“Kubatarrak euskaldunak baino hurbilago eta beroagoak dira”



ELIUD RODRÍGUEZ

Jatorria: Matanzas (Kubaa)

Noiztik: 2007tik Euskal Herrian eta 202tik Zorrotzan

Adina: 49 urte

Lanbidea: Taberna zerbitzaria

Eliud Rodriguez kubatarra euskal kulturari arin murgildu da. Saltsa musika gorputzean eta irribarrea beti aurpegian, Kubako erritmoa Zorrotzara ekarri du.

Euskal Herriak eta Kuba badute inolako antzekotasunik?

Bat ere ez. Nire herrian biztanleriaren %70 mestizoa da, (“mulato” deitzen dugun horietakoa), %25 zuria eta geratzen den %5a beste arraza batzuetakoa. Hemen ordea, alderantziz gertatzen da: guztiak nahiko antzekoak gara.

Kubatar bat Zorrotzan, zergatik etorri zinen hona?

Orain dela zazpi urte Euskal Herrira iritsi nintzen. Baldintza batzuegatik Zorrotzan agertu nintzen orain dela bi urte eta erdi eta oso eroso nago auzoan.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Zorrotza Bilbotik apur bat baztertuta eta urrunduta dago. Agian horregatik, jendea hurbilagoa da erdialdean baino. Oso pozik nago hemengo jendearekin. Bilbo erdian jendea beste modu batez dabil, bakarturik...

Kostatu zitzaizun auzora moldatzea?

Ez, pertsona oso irekia naiz eta guztiekin hitz egitea gustatzen zait. Horrek lagundu zidan eta esango nuke auzoko idiosinkrasian behala sartu nintzela.

Zer duzu faltan Kubatik?

Gauza asko: eguzkia, ohiturak eta... Fruta. Hemen beti kritikatzeko didate jateko modua. Han dena nahasten dugu. Mahai inguruan erretilu bat jartzen dugu indaba, arroz eta fruitaz beteta eta bakoitzak berea hartzen du.

Zer moduz moldatzen zara euskaraz?

Gustatuko litzaidake ikastea. Adibidez metroz bidaiatzen dudanean, euskaraz dauden kartelak irakurtzen ditut zer edo zer ikasteko. Agurrak eta hitz batzuk gogoratzen saiatzen naiz. Laguneei agur batzuk euskaraz esaten dizkiet. Saiatzen naiz, gutxienez euskara apur bat ikasten.

Kubara bueltatzeko asmorik duzu?

Bai noski, nire herria da eta gustatuko litzaidake bueltatzea.



Seme-alabarik al duzu?

Bai. 22 urteko neska bat eta 9 urteko mutila.

Posible da balio antikapitalistekin hezitzea gure gizarteak?

Bai. Adibidez seme-alabei, ama eta biok beti saiatzen gara gure ohiturak eta baloreak inkulkatzen. Gaztea nintzeneko oroipen onak ditut. Beti esaten diegu, "Kuban bazina hau egingo zenuke". Horrela, badakite Kuban nolakoa izango litzatekeen dena. Gure sistema oso ezberdina da. Bertan, umeak eskolatik datozenean haginlari edo medikuarenera joan direla esaten dizute bueltan.

Zure ustez, zer gertatuko da AEB-etako gobernuak blokeoa apurtzen badu?

Urte gutxitan aldaketa handia izan daiteke. Orotara atea baldik izango genuke. Garapen ekonomiko eta komertzialera irekita egongo

ginateke... Baina adi! beti beste modu batez. Medikuntza, hezkuntza eta gizarte sailak beti gure erara. Hori ez da aldatuko.

Athleticzalea zaitugu. Kuban ere futbola atsegin zenuen?

Kuban beisbola da kirolik gustukoena. Futbola ez dago hain hedatuta. Kiroletan, Kuba potentzia handia izan da beti, eta laguntza apur bat izanez gero, futboleak ere maila handira helduko ginatekeela ziur nago.

Euskaldunok hotz fama daukagu. Egia da? Zuk hala nabaritu duzu

Euskal jendea Kubakoa baino hotzagoa eta urrunagoa da. Hemengo bizimoduagatik dela esango nuke, estresa... Kuban nik ez nuen erretzen, gaur egun bai, eta estresari botatzen diot errua. Hala ere, lagun oso onak egin ditut hemen, eta oso herri jatorra zarete.

- BAIMEN GUZTIAK
- MATERIA ARRISKUTSUA GAINEN KASTAROA
- GARRAIOLARIEN TREBAKUNTZA-KASTAROA
- GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA)



ZORROTZAKO GAZTEEN TRIATLOI KLUBA



Adi, prest, ja! Urrezko domina lortzera!

Zorrotzako Gazteen Triatloi Klubak Bilboko triatloi talde handiena izatea lortu du.



Testua: Haizea Olleta

Argazkiak: Zorrotzako Gazteen Triatloi Kluba

Errutinatik ateratzeko ihesbidea da, laneko estresa edo bakoitzak dituen arazoak ahazteko modua. Niretzat txirindulaz ibiltzea ez da bakarrik kirola egitea, nire pentsamenduak antolatzeke modua ere bada. Lasaitasuna lortzeko bidea, zuretzat bakarrik den denbora. Hori da Zorrotzako Gazteen Triatloi Klubeko gazteek kirola egitean sentitzen dutena. Haiantzat korrika egitea edo txirindulaz aritzea kirol bat praktikatzeko baino askoz gehiago da; askatasunaren eta gogobetetasunaren sinonimoa da, bizi estilo paregabea.

Duela hiru urte sortu zen Zorrotzako Gazteen Triatloi Kluba eta denbora honetan etengabe hazi da. Bost kide izatetik hogeita sei lagun

izatera iritsi dira, eta haien artean bi emakume daude. Ilusioz beteriko lagun taldea da, non ondo pasatzea eta gozatzea lasterketak irabaztea baino garrantzitsuagoa den. Xabi Baraja triatloi taldeko kidearentzat hor dago taldearen arrakastaren gakoa: "Taldea gaztea eta nahiko dinamikoa gara eta gure artean oso giro ona dago".

Zorrotzako herri lasterketa

2013an triatloi taldeak Zorrotzako I. Herri Lasterketa antolatu zuen auzoko jaien egitarauaren barnean. Iaz ere antolatu zuten eta oso harro daude lortutako emaitzekin, izan ere, ekintzak izugarrizko arrakasta eta onarpena izan baitu. Aurtun ere, lasterketa motza errepikatzeke asmoa dute eta etorkizunera begira Zorrotzako I. Duatloia egitea gustatu-

ko litzaieke, baina ideia hau martxan jartze-ko zenbait eragozpen teknikoak dituzte, hala nola, premiazkoa izango litzateke FEVEko trenbidea lurperatzea.

Triatloi taldeko kideek astero bost edo sei egun entrenatzen dute eta aukera dutenean talde-
kako entrenamenduak ere egiten dituzte, adi-
bidez txirrindularitza saioak. Aurten, taldearen
handitasuna aprobeztatzuz, ia astebururo duat-
loi edo triatloi txapelketaren batean parte har-
tzen dute, eta nahiz eta guztiak bertan izena ez
eman, egiten ez dutenak taldekideak animatze-
ra hurbiltzen dira.

Orokorrean Euskal Herriko zirkuituetan lehia-
tzen dira, baina Estatu mailako zenbait las-
terketetan ere parte hartzera animatzen dira.
Aurten adibidez, Avilesen ospatutako Espai-
niako taldekako eta erreleboko duatloi txap-
elketara joan dira. "Ametsa izan da kirol hon-
etako onenekin egotea eta haiekin batera
lehiatzea", dio Xabi Barajak. Baina horrelako
ametsak betetzea ez da merkea, hori dela
eta, Zorrotzako Gazteen Triatloi Klubak diruz
lagundu dezaketen sponsorrak edo lagun-
tzaileak bilatzen ditu.

Emakumeak, gainditu gabeko ikasgaia

Azkeneko urteetan emakume kopuruaren haz-
kundea nabaritu dute triatloi taldeko gazteek
korrika eta duatloi munduan, baina oraindik
aurrerapauso bat falta dela uste dute. Asko
dira lotsa tartean dagoelarik txapelketetan
parte hartzera ausartzen ez diren emaku-
meak. Estereotipo horiek apurtu nahian, tal-



deak emakumeak kirol honetan parte hartzera
animatu eta gonbidatzen ditu. Hortaz badaki-
zu, emakumea bazara, kirola maite baduzu
eta gozatzeo gogo batuzu, Zorrotzako Gaz-
teen Triatloi Klubean tokia aurkituko duzu.

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

 **MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



ANA ELENA ALTUNA

Zorrotza B.H.I.ko irakaslea

“Harro egon beharko zinatekete auzoaz, eta hori ez dela gertatzen uste dut”



Bilbora ikastera etorri zen eta Bilbon lanean geratu zen Bergarako emakumea dugu Ana Elena Altuna. Zorrotzako instituan lan egiten du 2000. urtetik, justu eraikina zabaldu zen urtetik. Duela gutxitik, institutuaren ordezkaria da Taldeon Kordinakundean

Testua eta argazkiak:
Aitor Marín

Zorrotzako institutua bukatu gabe zegoenean, hezkuntza erreforma etorri zenean, Elexabarriko ikastetxera joan behar izan zuten Zorrotzako gazteek DBH ikasketak egitera. Zorionez, DBH eta Batxilergo ikasketak auzoan burutzeko aukera dute gaur egungo gazteek. Aurten, guztira 311 ikasle daude Zorrotza BHI n matrikulatuta, gehienak Zorrotza-koak, baina Alonsotegi, Olabeaga, Kastrexana eta Basurtuko ikasleak ere badaude. B erudukoa den bat izan ezik beste talde guztiak D erudukoak dira. DBHko maila guztiak eta Gizarte Zientzitateko Batxilergoa eta Batxilergo zientifiko-teknologiko ere irakasten da.

Arduratuta zaudete ikasle faltagatik?

Ez, arduratuta ez nuke esango. Egia da batxilergo taldeak osatzeko gure iturri bakarra gure DBHko ikasleak direla eta horrek batzuetan zaildu duela batxilergo taldeak osatzea. Ez daukagu eskaintza berezirik batxilergorako, adibidez, Batxilergo Artistikorik, eta azkenengo urteetan justu xamar ibili gara taldeak sortzeko. Beldurrik ez da, baina lortu behar dugu institutura gerturatzea Zorrotzatik kanpora doazen ikasleak. Horrek izan behar du gure erronka.

Kanpokoa izanda eta Zorrotzan urte dezente lanean eman ondoren, zer nolako irudia duzu Zorrotzaz?

Oso gustura nago auzoan. Kultur akademikoa-ren arloan Zorrotzak maila altuenetarikoa duela esango nuke. Helduentzako eskola bat beharrezkoa delakoan nago. Gure gurasoen eskola maila, hainbat arrazoiarengatik, oinarritzko hezkuntzan dago, eta Zorrotza bezalako auzo baten zat, Barakaldo edo Bilbora mugitzea ez da batere erosoa.

Eta Zorrotzarrok gure auzoari buruz?

Zuen auzoaz oso autoestima baxua duzue. Auzoan talde asko daude, gauza asko egiten dira, eta harro egoteko arrazoirik baduzue, baina txarto azaltzen eta "saltzen" dira. Auzotik kanpo dagoen irudia oso txarra da orokorrean, baina hemengo jendea oso ona da, oso ikasle eta pertsona baliagarriak daude. Azkenengo denboraldi honetan, lelo bat entzuten hasi naiz, eta oso gustukoa dut: "Zorrotza goza". Harro egon beharko zinatekete auzoaz, eta hori ez dela gertatzen uste dut. Bilboko beste auzo ba-



“ Hiru ikastetxe publiko daude auzoan, eta jende askok kanpoko ikastetxe pribatueta jotzen du. Hori aldatu behar da ”

“ Errealitateak islatzen duena baino irudi txarragoa du jendeak institutuaz. Geure burua gutxi eta txarto “saltzen” dugulakoan nago. ”

tzuetan ez bezala Zorrotzan gutxitan somatzen da auzokide harrotasun sentimendu hori.

Eta zerk dauka horren errua?

Objetiboki, Zorrotza oso baztertuta geratu dela Bilbotik. Azkenengo hamar urteetan kristoren aldaketa bizi izan du hiriak, baina Zorrotza aldaketa honen kanpo geratu da. Baztertuta utzi dute, eta zoritxarrez, askotan zutaz esaten dena sinistu eta barneratzen da. Harrigarria da Bilbok 2015. urtean trenbide pasagune hesiduna bat izatea. Estatu osoan oso gutxi egongo dira. Bilbon bat dago, eta non eta hemen. Gainera jada oso ezberdinduta dauden auzoko bi



eremu banatzen. Orain hasi dira igogailu bat egiten; orain! Santutxun hiru daude aspalditik! Autobidea zeharkatzeko dagoen oinezkoen pasabidea, orain dela oso gutxi estali zuten... Zorrotza apropos baztertu dute. Agian azkenengo urteetan hori aldatu da, baina mobilizaziorik jendetsuena ijito batzuekin elkarbizitza arazoak egon zirenean gogoratzen dut. Udaletxeko ateetan egunero egon beharko zinatekete guztiak, baita ijitoak ere!

Eta zer nolako iritzia du auzoak institutuari buruz?

Errealitateak islatzen duena baino txarragoa dela uste dut. Geure burua gutxi eta txarto "saltzen" dugulakoan nago. 300 ikasle inguru ditugu eta gauza asko egiten dira. Ostera, kallean entzuten dena, nahiko negatiboa da. Alde batetik, auzoak duen fama txarrari botako nioke errua, eta bestetik institutuko jendeak ez dugu jakin azaltzen edo islatzen egiten den guztia. Taldeon kordinakundera adibidez, eskola publikoetako inor ez da agertzen. Ezta guraso elkarrekin ere. Hiru ikastetxe publiko daude auzoan, eta jende askok kanpoko ikastetxe pribatuetara jotzen du. Hori aldatu behar da.

Zein izan daiteke institutuko erronka nagusia etorkizunerako?

Proiektu dezente dugu. Gure erronka Batxilergo finkatzea da. Eskaintza finkoa egon dadila eta ez azkenengo urteetan gertatu den bezala. Auzorako erreferentzia kultural bihurtu beharko genuke institutua, ikastetxe potentea izan behar dugu. Baina aintzat hartu behar da eraikina Hezkuntza Delegaritzarena dela, eta zorritxarrez, klaserik ez dagoen bitartean itxita dagoela. Hitzaldiak antolatu daitezke institutuan, ekitaldi kulturalak... Horrek lagunduko luke. Oso instalazio onak ditugu, gutxiegi erabilitakoak. Zorrotza bezalako auzo batentzat horrelako azpiegitura arratsaldeetan eta oporraldi garaietan itxita edukitzea pena bat da. Zabaltzekotan, Eusko Jaurlaritzak ez da kargu egiten arratsaldeko mantenimenduaz. Beste zentru batzuetan, kontserjea institutuan bertan bizi da astean zehar. Hemen arazoak ditugu kontserjea izateko, DBH eta Batxilergoko klaseak solapatzen direnez, kontserjearen ordutegia denontzat helteza zaila delako... Honetan ere, Zorrotza baztertuta dago.

Nolakoak dira orokorrean ikasleak? Klaseak eman eta aditzez gain, zer egiten da institutuan?

Ikasle gehienak oso onak dira. Irakasle berriak lehendabizikoz hona etortzen direnean, hasieran gogor hartzen dute Zorrotzara etortzea, baina errepikatzen dute giroa eta jendea ezagutu ondoren. Pena da hainbeste ikasleek hezkuntza pribatua aukeratzea. Proiektuei dagokienez, asko aipatu daitezke. Elkarbizitza proiektu berri bat izan dugu aurten, ikasleren batekin arazoak badira, mediazio prozesu bat martxan jartzen da, eta ez da bakarrik zigorraren bidea hautatzen; urtero Sahara eta El-kagaien Bankuaren alde janari bilketa egiten da, eta erantzun itzela izaten dute biek; ikas-turte bukaeran udal polikiroldegian olinpiada bat egin ohi dugu, eta oso jende gutxi daki horretaz; olentzero eta inauteri jaiak egiten ditugu; ortua ere badaukagu, kurrikulumaren barnean ikasleek zaintzen dutena. Gure ikaslegoa oso ezberdina da eta guretzat helburu garrantzitsuenak ikasle guztiei erantzutea da. Ez bakarrik emaitza onak ateratzen dituztenei, horiei ere bai, noski, baina hezkuntza denontzat izatea eta bakoitzari behar duena ematea da helburua. Horregatik dibertsitatea zaintzeko programa bereziak ditugu eta 3. eta 4. mailan kurrikulum desberdineko taldeak, eta talde horietako ikasle eta irakasleek zaintzen dute ortua. Honetaz aparte, irteera dezente egiten dira. Oso garrantzitsua da ikasleak auzotik ateratzea. Honekin lotuta, ikasbidaia irakasleekin egiten da oraindik. Euskal astea ere antolatzen dugu urtero. Euskara arloan, euskalduntze prozesuan lan asko egin behar da Zorrotzan. Ez bakarrik hizkuntza ira-

katsi, eta institutuan ardura handia dugu lan honetan. Gure ikasleentzat, euskara bakarrik akademikoa den zer edo zer baino ez da, eta horren ondorioz batzuen jarrera gorroto hutsa-rena da. Ingurua euskaldunagoa izango balitz, asko lagunduko luke. Gazteguneko jendeare-kin hasi gara lanean aisialdian euskararen erabilera sustatzeko. Ezin ahaztu udalean aurkeztu dugun proiektu berria, eta onarpenaren zain dagoena: Zorrotzako jende nagusiaren bizi-esperientzia nola bideratu ikasleengana haiek ezagutzeko. Bizi-esperientzia, bizipe-nak, ibilbideak, migrazio ibilbideak askotan... Horiek galtzen ari dira. Testimonio bilketa, argazki artxibo zaharrak bildu eta erakutsi, ibilbi-deak prestatu... eta abar egingo da.

Posible ikusten duzu institutua auzora zabal-tzea?

Horretan gaude. Institutuak auzoko bizitzan presente egon behar du behintzat. Eusko Jaurilaritzaren ardura lortu beharko genuke horretarako, eta oso zaila izango da, baina ezin etsi. Berririo hasi gara Taldeon Kordina-kundera joaten, auzoan zer egiten den jakite-ko asmoz eta ekintza horietan parte hartzeko asmoz. Kuriosoa da baina institutuan auzoan bertan bizi diren bi irakasle baino ez daude... Agian, ate irekien jardunaldi gehiago egin beharko lirateke; eskola-orduetan etorri ahal diren gurasoentzat ekitaldi gehiago presta-tzea, (kontuan izanda, momentuz ordutegia-ren muga dugula)... Eskola-orduetatik kanpo zer edo zer antolatzea oso zaila da. Hemen adibidez, liburutegi ona dugu., Zazpi Landako jendearentzat baliagarria izan litekeena, baina eskola-orduetatik kanpo ezin da erabili.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75 Telefonoa: 94 442 44 68	TAILERRAK ETA ZERBITZUAK Zorrotza-Kastrexana errep. 75 Telefonoa: 94 442 17 12
--	---

Etxeko pizza begetala



Osagaiak: Pizza orea fresko berezia, tomate saltsa naturala, 3 berakatz atal, kipula handi bat, 6 txanpiñoi, mozzarella gazta, gatza, koilarakada bat azukre, piperbeltza eta oliba olioia

Orea prestatzen da eta laberako paperaren gainean zabtzen da. Labea 150°tan aurreberotzen da. Tomate saltsa egingo dugu geroago. Berakatzak eta tomate naturala oliba olio apur bat duen zartagin batean bota eta su baxuan utzi. Azukre pixka bat botako diogu garraztasuna kentzeko. Kipula, txanpiak, eta nahi ditugun barazki guztiak xerra mehetan zatitu eta tomatearekin batera orearen gainean bota. Gatza eta olioarekin ondu. Pizza 15 minutu bitartean labetuko dugu. Jarri labearen erdian. Orea krujiente geratu denean eta barazkiak sukaldatuta badaude, kendu labetik eta mozzarella botako dugu gainetik. Sartu labera berriro, orain gainerre funtzioan gatza urtzeko. Pizza kendu. Oreganoz hautseztatu eta listo. On egin!

Zailtasun maila	Ertaina
Prezioa	euro 1

ASKABIDE KULTUR ELKARTEA

Askabide kultur elkarte

1982tik zabalik dagoen taberna da. Elkarte moduan, auzoan antolatzen diren ekimenez gain (jaiak, inauteriak, ...) bereak ere baditu (perretxiko eguna, irteerak, ...).

Elkartasun pintxoak: Igande goizetan elkartasun pintxoak egiten dituzte euro baten truke. Saul Kurto auzokidea Parisen preso dago, Zorrotzatik ia 1000 km-ra. Horrek dituen gastu ekonomikoak (bidaia, beharrianak, ...) aurre egiteko egiten dira pintxo hauek, bera eta bere egoera berberean dauden preso politikoen gastu ekonomikoak aurre egiten laguntzeko.

Frai Juan, 20
Tel. 94 612 93 85




BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estarta IO

AUPA ATHLETIC

independentzia!
SOZIALISMOA!



ITZULERA GOGOAN,
TAUPADEN ARRAZOA



Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

ASKABIDE
kultur elkarte
Zorrotza

FERNANDO AUTO ESKOLA



Fernando Auto Eskola 1996an gaur egungo bere kokalekuan ireki zituen ateak, Zorrotza Auto Eskolatik etorritako taldeak eskaintzen zituen 20 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Denbora horretan zehar ikasleei tratu familiar eta maitakorra eman nahi izan diete eta horrela egiten jarraitzea espero dute.

Nahiz eta autoeskola txikia izan, haiekin honako hau guztia lortu ahal duzue: bai- men guztiak (motorra, kotxea, kamioia, trailerra eta autobusa), merkantzia arris- kutsuen gaineko ikastaroak (oinarrizkoa, ontzi-autoak, lehergai-luak eta erradiakti- boak) eta gidarien gaitasun agiria (GGA, hasierako eta etengabeko formazioa)

Fernando Auto Eskola.

Untziola kalea, 2
Tlfnoa. 94 499 25 91



Erraiak

Danele Sarriugarte. Elkar. 2014



“Erraiak” liburuak etengabeko bar- ne bakarriketa batean murgiltzen gaitu. Protagonistaren lehenengo pertsona idatzita, egiten/ikusten/ pentsatzen duen bakoitzean parte hartarazten digu idazleak. Horre- tarako bizitzaren hainbat pasarte modu gordinean kontatzeaz ba- liatzen da. Esaldi luzeak erabilia, artifizioz eta atzizkiez beteriko oso

onomatopeiakoa den testua, ez du egiten hasie- ratik amaierara erraz irakurri daitekeen libururen bat, baina literatura ere desatsegina izatekoa da, gauzak diren moduan islatzeko, gu eta gure erre- alitateak zalantzan jartzeko. Boxeo partida batean bezalaxe, zeu, irakurlea, kolpeez babesten saia- tzen zara, baina aurpegia deskubritzen duzunean, arreta jartzen diozunean testuari, zuzeneko bat ja- sotzen duzu, zeren eta protagonistari gertatutakoa zuri ere gertatu zaizu, eta zure segurtasun, dogma eta egia berdadero guztiek ez dute ezertarako ba- lio erraiak agintzen dutenean.



Zirkulutik espiralera

Anestesia

(Bonberenea ekintzak. 2015)



Bueltan da Zarautzko taldea belarriak astintzeko prest. 8 urte luze pasa dira “Terapia” azken diska kaleratu zutenetik eta 2013an taldearen 25. urteurrena ospatzeaz batera iraupen luzeko lana prestatzen ari zirela ohartarazi ziguten.

Emaizta bortitz eta gordina lortu dute Kazalis eta enparauek. 38 minututan 13 abesti, horietako bi 30 segundu baino gutxiagokoak (nabarmentzeko da diska honetan taldeak bere ibilbidean egin duen abestirik laburrena aurki dezakegula: 11 segundukoa alegia).

Soinuari dagokionez, gauzak asko aldatu dira 90eko hamarkadan bere lehenengo diskak argitaratu zituztenetik. Egurra banatzen jarraitzen dute (Euskal Herrian ikus dezakegun zuzeneko bortitzenetakoa dudarik gabe) baina produkzioa garbiagoa da. Alde horretatik momentu batzuetan faltan izaten da lehen disketako soinu zikina. Edozein modutara, eskertzekoa da Euskal Herrian musikaren eszena bizirik jarraitzea.



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Euskarak, genero gramatikalean oinarriturik hitzen bereizketa egiten ez duen arren, erabilera sexista zein ez-sexista egiteko aukera ematen digu. Adibidez, hitz batzuetako generoa markatzeko, "giza-, anai-, ema-, -gizon-, -eme-, -andre" atzizki eta aurrizkiak erabiltzen dira. Berez, hauen erabilera ez du zertan esan nahi era sexista baten hitz egiten ari garenik, baina hizkera generizatuak pentsamolde patriarkala ala androzentrikoa sarriago agertze-ko aukera ematen du, emakume eta gizonen

esperientzia eta jokaerak kontrajarriz eta ba-koitzari tradizionalki atxikitu zaion leku edo rol femeninoa ala maskulinoa markatuz.

Askotan era inkonszientean egiten dugu edo Begoña Muruagak dion bezala: "Hizkuntzek ez dute beren egituragatik diskriminatzen. Hizkuntzak kultura jakin baten isla dira". Gai-nera, erderaren eraginez, generoa markatzen duten hitz berriak erabiltzeko joera handi-tzen doa: honen adibidea alkatea/alkatesa, aktorea/aktorea, jainko/jainkosa, txotxolo/txotxola, guapo/guapa... hauen erabilerarako beharrik ez dagoenean.

SALAKETA ARGAZKIA



Azkenengo hilabeteetako euriteek Zorrotza-Kastrexana errepidean eragina izan dute eta lur-jausiak egon dira. Orain arte zortea izan dugu eta lur-jausiek ez dute inolako ezbeharrik sortu, baina errepide honetatik egunero txirrindulari, eta oinezko eta ibiltari ugari igarotzen dira. Sareak behin-behineko irtenbidea izan daiteke, baina inolaz ere ez betirako konponbidea, ziurra ez baita. Ezin dugu onartu Aldundiak eta Bilboko Udalak arazoa batetik bestera pasatzen jarraitzea. Lur-jausirik berriro ez gertatzeko beharrezkoak diren lanak lehenbailehen egin behar dira, ezbeharren bat gertatu baino lehen.

Zorrotzako XIX. ipuin lehiaketa 2015

Aurkezteko azken eguna: maiatzak 15

Non: Zorrotzako Auzo Etxea, Institutua eta aek euskaltegia



SARIAK

12 URTETIK BEHERAKOAK

1. SARIA: Sopuerta abenturarako sarrerak
2. SARIA: jolas

DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEAK

1. SARIA: 100 euroko kultur bonoa
2. SARIA: jolas euskalduna

Antolatzaileak:



Babeslea:



Gaia:
librea

info +:
Zorrotzako aek
622 619 020

Eskuak

Eskuak. Zertarako balio ote dute eskuek? Bada gauza askotarako, eskuekin gauza pila egin dezakegu eta. Eskuekin gauzak egi-ten dira, hori baita daukaten ezaugarriarik funtsezkoena. Eskuekin erabaki egiten da, beste gauza askoren artean. Erabaki, hitza eman, seinalatu. Eskuak guk uste dugun baino inportanteagoak dira. Baina herri honetan, dirudienez erabakitzea debekatuta dagoenez, batzuen arabera nahiak adieraztea zilegia ez denez, ezin dugu erabaki. Ukatua izan zaigu hitza, mutu geratu dira gure ahotsak, edo hobeto esanda, mututu dituzte, edo mututu nahian dabilta.

Hala ere, bi esku jarraitzen dugu izaten, eta esan dugunez, eskuek gauza asko egin ditzakete. Eta ez digutenez erabakitzen uzten, guk eraikiko dugu erabakia, guk josiko dugu demokraziarantz eramango gaituen hari fina, pazientziaz eta lasaitasunez, inolako presarik gabe.

Herritarrok, erabakitzekeo eskubidearekin bi zita izango ditugu aurrean. Bata, apirilaren 25ean Euskal Herriko auzo eta herri ezberdinetan ospatu zen "Jostu-Eguna", Zorrotzan ere ospatu genuena. Izan ere, egun horretan hainbat jardura ezberdin antolatu ziren auzoan, bazkari herrikoia, bertso-saioa eta batukada tarteko. Denbora honetan guztian ehundu ditugun oihalak elkartzeko unea izan zen. Beste aldetik, ekainaren 21eko mobilizazio erraldoiak dauzkagu. Egun horretan,



hautestontzi erraldoiak eraikiko ditugu Euskal Herriko hiriburuetan, erabakitzekeo eskubidea praktikan jarritz.

Erabakia herriak hartu behar duela sinesten baduzu, herriek beren etorkizuna erabaki dezaten aldekoa bazara, azken finean, demokrazian sinesten baduzu, ez pentsatu bitan eta gehitu Gure Esku Dago herritar mugimendura, eta parte hartu mobilizazioetan! Etorkizuna Gure Esku Dago eta!

Zorrotzako gure Esku Dago
www.facebook.com/gureeskudago.zorrotza

ARIN GRAF, S.L.
IN P R E N T A

Zalbidea estarta, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

ARMAZOIA + KRISTALAK
URRUNETIK EDO HURBILETIK

49€

Blackguard
ibarrera luxury OPTICA

Koadrilen arteko harremanak josten

Giro oneko auzoa dugula aldarrikatu zuten Zorrotzako koadrillek burutu zuten I. Pote-Jasotzaile egunean.



Apirilaren 11n burutu zen Koadrillek antolatutako Pote-Jasotzaile eguna eta bertan aldarrikatu zuten Zorrotza auzo bizia eta alai delako. Horretarako, auzoko taberna guztietan pote bana hartu zuten musikak lagunduta. Ideia aldeztu aurretik koadrilla guztiek pentsatua izan zen, potea aitzakia izanda, koadrillen eta Zorrotzako lagun arteko harremanak sendotzea zen benetako helburua. Gutxi iruditu zitzaizkien soilik Zorrotzako jaietan izatea koadrilen arteko jolasak, eta haien

harremanak sendotzeko asmoz, ekintza hau burutu zuten. Jakina denez, auzo mugimendu aparta dago gurean eta egun honetan frogatu ahal izan zen, jende ugari egon baitzen egun osoan zehar taberna eta kale guztiak giro onez eta alaiatasunez betetzen.

Eguzkiak eskaintako egun zoragarriak eta tabernen pintxoak laguntzari esker, giroa apartekoa izan zen. Aipatzekoa da halaber, irrika handiz itxaroten zela eguna eta horrek egundoko partaidetza lagundu zuen.

Lortutako arrakasta ikusita, koadrillak pentsatzen hasiak dira hurrengo urterako nola hobetu dezaketen eguna. Lehenengo urtea izateko gauzak oso ondo irten dira, baina gauza asko oraindik hobetu daitezkeelakoan daude. Ospakizunean jende gehiagok parte hartzea baita helburua.

Hurrengo urratsa, Bilboko Aste Nagusian "Txosna-tour" bat egitea izango da, Bilbon bazkaria antolatu eta txosna guztietatik pasa, gainera sortutako giro onaz bultzatuta, "Koadrillen Eguna" ospatzea izan daiteke beste ideia bat, Zorrotzako jaiak baino aste bat lehenago.

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

zmorrotz@gmail.com



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

Susmoa: auzoen garapenerako hiri-sareak

Urte asko pasa dira Gure Lurra auzoan eskuhartzen hasi zenetik. Hamarkada hauetan egoera eta bizipen desberdin asko bizi izan ditugu elkarteak osatzen dugun pertsona guztioak.

Bide luze eta konplexu honetan, asko izan dira Gure Lurrarekin bat egin duten pertsona eta elkarteak; Bilboko beste auzoetan gurea eredu duten beste elkarteak ere badaude, eta horiekin bat eginez duela urte asko Susmoa sortu zen.

Susmoa Bilboko beste elkarteekin batera hasitako proiektua dugu, Komunitatearen garapena oinarri duten beste 4 elkarterekin batera hasitako proiektu eta ibilbidea. Errekaldeko Gazteleku, Atxuriko Bidegintza, Deustuko Al-daika eta Otxarkoagako Tendelekin batera komunitatetik sortuta eta komunitatera bideratutako lan eredu bat defendatzeko proiektua.

Ikuspuntu hezitzaile batetik bideratutako hiri mailako mugimendu honekin, parte hartzea eta gizabanako eta komunitateen elkarbizitza sustatzea dugu helburu. Aniztasun kulturala, giza parte hartzea, errespetu eta berdintasun balioak partekatzen ditugu.

Pasa den udazkenean izandako jardunaldietan, komunean eraikitzeko plana zehaztu ge-



nuen, hurrengo urteetan jarduteko irizpideak zehaztuz. 5 elkarteetako koordinadorak, langileak, boluntarioak eta kolaboratzaileak bigegunez bildu ginen, elkarrekin gure auzoen etorkizunari buruz hausnartu eta garapenaren bidean pausoak emateko.

Laster webgune berria jarriko dugu martxan, gure eginkizun eta berri guztiak ezagutzera emateko. Zorrotza eta Bilboko biztanle guztientzako proiektuaren erakusleiho nagusia izango dena.



Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es



Javi

Oso gutxi eta azken momentuan. Jolastoki berria eta Bidegainen bukatu gabe dagoen pasabidea baino ez zaizkit bururatzten



Mari Mar

Ez dute ezer egin, Jolastokia bakarrik. Eta azkenengo momentuan datozen hauteskudeetan bozka eskatzeko.

Udal legegintzaldia:

Nola baloratzten duzu lau urte hauetan udalak Zorrotzan egindako lana?

Ainara Garcia



Marga

Jolastokiko aterpeaz gain, ez dute gehiegi egin. Askoz gehiago egin daiteke, beharrezkoa den frontoiaren estalketa, adibidez. Hauteskundeak gainean ditugu, eta hori da aldaketaren bat ikusteko garai bakarra, baina ezta horrela ere.



Ana

Egia esan, hobekuntzarik ez dut nabaritu. Duela lau urte bezala ikusten dut auzoa eta gauza ugari daude hobetzeko nahi izanez gero



Marce

Negatiboa, ez dutelako ezer egin. Parkeko aterpe berria eta listo. Hori ez da ezer.

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidena estria, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO



MADNES

Tel. 94 441 62 75

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estarta. 10
Tel. 94 608 85 74

Pizzeria Jatetxea



La Viña de Oro
Zorrozgoiti 1 • 944 994 247

amc
diseinua

Diseinu grafikoa &
irudi korporatiboa

Tel. 657 732 934
aitor@amcdiseinua.net

www.amcdiseinua.net



Egunetan
19.30
Jueves

ZINE 2015 *Maiatz* *Mayo* ZORROTZA

CENTRO MUNICIPAL ZORROTZA UDALTEGIA

7 ZINEBIHILUB:

Umorezko film laburrak
Cortometrajes de humor

14 ZINEBIHILUB:

56. Nazioarteko Lehiaketako film laburrak
Cortometrajes del 56. Certamen Internacional

Egunzterean
Miércoles

20 FILM LUZA - LARGOMETRAJE

"A escondidas" Director: Mikel Rueda
Presentado por el actor German Alcaraz
vecino del barrio

21 FANT XXI:

Euskal film labur fantastikoak
Cortometrajes fantásticos vascos

28 FANT XXI:

Nazioarteko film labur fantastikoak
Cortometrajes fantásticos internacionales



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO
HOLKUMETZA HERRITARRA SALA
ÁREA DE CULTURA Y EDUCACIÓN

ZINEBI
FANT



VI CLOWN

ZORROTZA
2015



MAIATZA / MAYO

- 7** (EGUENA / JUEVES)
ZORROTZAKO LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA DE ZORROTZA
18:00 XANTI LEDESMA (Euskal Herria) Ez ikardu
ZORROTZAKO UDALTEGIA / CENTRO MUNICIPAL DE ZORROTZA
19:30 ZINEBIKLUB Umorezko film laburren erakusketa / Muestra de cortometrajes de humor
- 8** (BARIKUA / VIERNES)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
18:30 GANSO & CIA (Euskal Herria) Walkman
19:30 JESSICA ARPIN (Suitza) Kabalazi
- 9** (ZAPATUA / SÁBADO)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
18:30 MATHIEU MOUSTACHE (Frantzia) Dans tous ses états
19:30 MONKEY STYLE (Frantzia) Babyloon

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

ORDENAZAILEA / ORGANIZA



www.kulturabarrutik.net

KulturaBarrutik
 BilbaoKultura

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN



Bibliotekak

ZINEBI